

Abadiñoko Nuestra Señora de Begoña barnetegia frankismoaren ongintza sistemaren hastapenetan.

Marta Calvo-Larralde

Laburpena:

Artikulu honetan frankismoaren lehenengo hamarkadetan martxan jarri ziren Auxilio Socialeko barnetegi bizkaitarrekiko hurbilpena egiten da. Ikus daitekeenez, lehenengo hamarkadan sortu ziren egoitzak txikiagoak ziren, gehienbat landa-eremuetan zeuden eta Mugimenduko emakumeek zuzentzen zituzten, Abadiñoko egoitza adibide. Bigarren aldiaren ordea, egoitzen kopuru eta tamaina handitu ziren, Bilbo Handian kokatu ziren eta elizaren papera zein enpresen papera nabarmendu zen.

Hitz gakoak: frankismoa, ongintza, haurtzaroa, Auxilio Social, Bizkaia.

1. Sarrera

Egungo haurren babeserako sistemaren aurrekari hurbilenak frankismoan ditugu. Hala ere, frankismoak garatu zuen gizarte politika gutxi aztertu da (Molinero, 2003), eta Euskadikoa ez da salbuespen bat. Abadiñoko *Nuestra Señora de Begoña* egoitzari buruzko ikerketa hau haurrekiko ahanztura mahaian jartzera dator.

Egoitzaren aipamena egiten duen bibliografia urria topatu da, zenbait egunkari, Estatuko Aldizkari Ofizialeko hainbat ale eta Auxilio Socialen atal desberdinek sortutako txosten batzuk.

Dokumentuetan agertzen den informazioa azalekoa da eta propaganda kutsua du, laudorioz beteta dago eta. Datuok modu kritikoa aztertze aldera Auxilio Socialen egoitzen gaia Estatu mailan jorratu duten autore esanguratsuen lanak hartu dira kontuan, besteak beste, Mónica Orduña Prada (1996), Ricard Vinyes, Montse Armengou eta Ricard Belis (2002), Ángela Cenarro (2006, 2009 eta 2012) eta Francisco González de Tena (2007 eta 2009).

Era berean, Gregorio Arrien (2014), Ascensión Badiola (2015) eta Joseba Eigurenen (2011) lanak aztertu dira, atzerrira bidalitako haur euskaldunak zein euskal espetxe eta kontzentrazio-esparruetan egondako haur eta nerabeen egoera jorratzen dutenak.

2. Auxilio Socialen esku-hartzearen ideologia, marko legala eta instituzionala

Haurrak barnetegietan artatzeko arrazoiak politikoak zein sozioekonomikoak izan ziren. Gerraosteko lehenengo urteetan arrazoi politikoak gailendu ziren, hau da, erregimenak *gerrako haurren*¹ eta presoan seme-alaben zaintza bilatu zuen aktiboki, baina berrogeigarren hamarkadan aurrera egin ahala, miseriengatik egoerak² areagotu ziren eta haur eskale ugari bildu zen egoitzetan (Cenarro, 2009).

Arrazoi politikoengatik barnetegietara eraman zituzten haurrak *eugenesia positiboa* pairatu zuten, alegia, senideak izan arren haiengandik urrunduak eta isolatuak izan ziren. Banaketaren

¹ *Gerrako haurrak* kontzeptuak nazioarteko babesa bilatu zuten haurrak zein Valentzia edota Aragoiko *kolonia* errepublikazaleetan bildu ziren haurrak barneratzen ditu (Cenarro, 2009).

² Auxilio Socialen zeuden haur ugari prostituten seme-alabak omen ziren, eta arrazoi horregatik preso hartu zituztenean haien haurrak egoitzetan sartuaraziak izan ziren.

arrazoi nagusia Vallejo-Nájeraren teoriekin lotzen da, erregimeneko psikiatrak marxismoa psikopatia kutsakortzat jotzen baitzuen (Vinyes, Armengou eta Belis, 2002). Zentzu honetan, pedagogo, psikiatra eta psikologo frankistek, Juan Antonio Onieva, Jesus Ercilla edota J.J. Piquer y Jovier, hurrenez hurren, haurren erredentzioa sustatu zuten, txikiak izan arren egoeraren erantzule hartzen baitzituzten (Cenarro, 2006).

Diskurtso frankistak haur abandonatuaren kategorian sartu zituen guztiak eta haien tutela eta zaintza arautu zituen lege desberdinen bitartez, besteak beste, 1940ko azaroaren 23ko Matxinada eta gerraren ondoriozko umezurtzen babesari buruzko legearekin eta 1941eko abenduaren 4ko Haur abandonatu eta aberriraturako haurren inskripzioari buruzko legearekin. Azken honekin, haurren nortasuna³ aldatzeko gaitasuna eskuratu zuten Adingabeen Tutela Auzitegiak (Tribunales Tutelares de Menores) Erregistro Zibilaren laguntzarekin (Vinyes, Armengou eta Belis, 2002; González de Tena, 2009).

XX. mendearen hasieran, haur abandonatuekin esku-hartzeko behararekin bat egin zuten Estatu modernoek, baita horiei bideraturako egitura instituzionala sortu ere. Adingabeen Babeserako Batzorde Probintzialak (Juntas Provinciales de Protección de Menores) eta Adingabeen Auzitegiak egitura horretako bi instituzio garrantzitsu izan ziren, biak probintzia mailan aritu ziren eta haurrentzako egoitzen sare bat eratu zuten. Haur pobre eta abandonatuak arrikutsutzat hartzen zituzten eta delinkuentzia⁴ aurreikuste aldera haien sexuaren araberako laneratzea bideratzen zuten. (Cenarro, 2009).

Frankismoak haurrei bideratutako ongintza sare guztia bereganatu bazuen ere Auxilio Social-ek modu autonomoan jardun zuen. Horren erakusle dira Bizkaiko Batzordeak eginiko memorieta topatzen diren esaldiak non gorri-separatistek atzerriratu zituzten haurrak bueltan ekarri zituztela azaltzen da Auxilio Socialeko egoitzei buruzko aipamenik egin gabe (Junta Provincial de Protección de Menores de Vizcaya, 1940 eta 1945). Bestetik, Adingabeen Auzitegiak, haurrak barneratzeari buruzko erabakiak hartu bazituzten ere (Cenarro, 2009) Bizkaiko auzitegiaren 50. urteurrenaren harira egindako liburuan (1970) laguntzaile aritu ziren egoitzen artean Ángeles Custodiosen (Aingeru Zaindaria) egoitza eta Ybarra familiaren⁵ eragina argi adierazten badiera ere, Auxilio Social ez da inondik ageri.

3. Auxilio Social

Nazien *Winterhilfe* izeneko karitatezko laguntza ereduari jarraituz Mercedes Sanz Bachiller eta Javier Martínez de Bedoya falangistek *Auxilio de Invierno* sortu zuten 1936an, Valladoliden. Onesimo Redondo hiltzean, alarguna zen Sanz Bachiller Valladoliden zegoen falangeko kuartelera joan zen matxinatuak laguntzera eta ondoren, kaletik zeuden haurren egoera penagarriaz ohartu zen. Gutxira, bere senarraren kidea zen Martínez de Bedoya ere Valladolidera heldu zen Gernikatik ihes. Martínez de Bedoyaren aita Alemanian aritu zen diplomatiko eta semeak ondo ezagutu zuen herrialde haren politika eta hizkuntza. Beraz, Sanz Bachiller aholkatzean hurbila egiten zitzaion ereduari jarraitu zion (Orduña Prada, 1996; Cenarro, 2006 eta 2009).

³ Autoreok *haur lapurtuen* sarearen erdian kokatzen dituzte Auxilio Socialeko egoitzak.

⁴ Eskale aritzea edota lan ez egitea, hau da, "nagia" izatea delitutzat hartzen zen ere.

⁵ Gabriel Ybarra ezaguna da Adingabeen Auzitegien legea sustatzeagatik eta lehenengo auzitegia (Bilboko) eratzeagatik zein lehenengo egoitza laguntzaileak bultzatzeagatik, besteak beste bere izeba Rafaela Ybarraren Aingeru Zaindaria. Ondoren, Javier Ybarra, aita bezala, epaile eta adingabeen babeserako batzordearen kide izan zen. Horrez gain, Altzamendu Nazionalean paper aktiboa izan zuen, baita kargu frankistak lortu ere, besteak beste, Auxilio Socialeko Bizkaiko delegazioaren zuzendaritza 1942ko azaroaren batean (Orduña Prada, 1996; Movimiento Nacional, 1962).

Helburua Hitlerren *Nationalsozialistische Volkswohlfahrt* (NSV) izeneko agentzia moduko bat sortzea zen, hau da, erregimenak onartutako ongintza agentzia bakarra, gizartea kontrolatzeko funtsezko erreminta. Eliza katolikoarekin eta militarrekin izan zituzten harremani esker Estatuan garatu zen ongintzaren kontrola eskuratu zuten. Horrek tirabirak sortu zituen Mugimenduko beste emakume nabarmenekin, María Rosa Urraca Pastor eta Pilar Primo de Riverarekin hain zuzen. Hasieran, ongintza jarduera bera edo antzekoa jorratzen zutelako eta ondoren, *Servicio Social de la Mujer*⁶ sortzean, kide profil bera zutelako, hau da emakume gaztea (Cenarro, 2006).

Sanz Bachillerrek Mola generalarekin hitz egin zuen erakundea hedatzeko baimena lortze aldera eta honek baietza eman zion, betiere Bilbotik⁷ hasten baziren. Beraz, *Poblaciones Liberadas*-en atzetik sartu ziren, lehenik eta behin, jantokiak antolatuz (Orduña Prada, 1996; Cenarro, 2006).

Bizkaiko Auxilio Socialen XXV. urteurrenaren harira argiratutako txostenaren hasierako hitzak ikusita, Abadiñoko egoitzaren garrantzia nabarmentzen da:

Al entrar las tropas nacionales en Bilbao, el 19 de junio de 1937, tras ellas llegó a nuestra Provincia Auxilio Social con su completa organización y como medida más urgente hubo de atender a saciar el hambre de una población agotada por los sufrimientos y privaciones a que durante la dominación roja se vio sometida y empezó a trabajar no sólo en Bilbao, sino en toda la Provincia, creando desde los primeros momentos en Abadiano un Hogar para niños abandonados. (Movimiento Nacional, 1962, z. g.)

Egoitzaren hasierako data ez da modu zehatzean aipatzen, baina Abadiñoren erorketa eta gutxira antolatu zela uler daiteke, hau da, 1937ko apirilaren 26aren ondoren, Nafarroako Brigadak sartu eta gero (Irazabal Agirre, 2007). Aurrerago ikusiko dugun informazioak ez du azkartasun hori baieztatzen.

Egoitzaren antolaketari dagokionez, berrian Rodrigo Vivar Téllezen zuzendaritza aipatzen da, Gobernadore Zibila eta Mugimenduko nagusia Bizkaian. Haren laguntzaile moduan agertzen dira Javier Ybarra eta Eduardo Lastagaray, Auxilio Socialeko Delegatu Probintziala eta Idazkari Orokorra, hurrenez hurren. Era berean, Luis Gaunaren lana goraipatzen da, arkitektoa eta *Regiones Devastadas*-ko nagusia Bizkaian (*Labor social de la Falange en Vizcaya*, 1943).

Kontrara, txosten berezian lehenengo delegatuen ardurapean antolatu zela aipatzen da: Juan Aguirre Achútegui, lehenengo Delegatu Probintziala, Adolfo Ramírez Escudero, lehenengo Idazkari Probintziala eta Juan Olavarriaga Alonso, Zerbitzuen Nagusia (Movimiento Nacional, 1962).

Dakigunez, Auxilio Socialek egitura piramidala zuen, hau da, maila nazional, probintzial eta lokalean delegaritzak zituen. Maila lokalean egoitzen kudeaketaz eta diru bilketaz arduratzen ziren, *Ficha Azul* delakoaren bitartez adibidez. Bestetik, maila nazionalean azken hitza bazuten

⁶ Zerbitzu hau Jesus Ercilla Ortega psikiatra falangistak diseinatu zuen “militarizazio femenino” gisa, eta dekretu bidez onartu zen 1937an, azken bertsio hau Bedoyaren eskutik. Ercilla Vallejo-Nájeren taldearekin zuen harremana (Cenarro, 2006).

⁷ Mezquiriz izan zen Propagandaren arduradun, hau da, irrati eta egunkarietako berriak gainbegiratu zituen Auxilio Social Bilbora sartu zenean. (Cenarro, 2006) Hurrengo urtean egindako erakusketaren argazkiak ikus daitezke Biblioteca Nacional de Españaren (BNE) weborrian.

ere, maila probintzialean botere handia eskuratu zuten. Azkenik, egituraren agintzaritza Nagusia Gobernazio Ministerioaren menpe zegoen (Orduña Prada, 1996; Cenarro, 2006).

4. Ama eta Umea Babesteko Obra Bizkaian

Auxilio Socialen hasierako ekimenak elikadurari lotuta egon ziren. Haur zein helduen gosetea arintze aldera jantoki eta sukaldeak antolatu zituzten herri eta hirietan. Hala ere, haur eta emakumeak (ama ziren heinean) arreta berezia jaso zuten eta zenbait egoitza eredu garatu zituzten egoera desberdinak artatzeko.

1937an Ama eta Umea Babesteko Obrari (Obra de Protección a la Madre y al Niño) hasiera eman zioten, eta honen barruan hainbat egoitza garatu eta kudeatu zituzten. Hiru urtetik aurrerako haur eta nerabeei zuzendutako egoitzei dagokionez, barnetegi⁸ izaera zuten: *Hogares Infantiles* (3-7 urte), *Hogares Escolares* (7-12 urte) eta *Hogares de Aprendices* (12-17 urte). Adinaren arabera banatzeaz gain, sexuaren arabera banatzen ziren (Orduña Prada, 1996; Cenarro, 2006).

Gerora, beste egoitza mota batzuk egokitu ziren, gazteen “laneratzeari” begira, *Hogares Residenciales* izeneko egoitzak adibide (Cenarro, 2012), baita aniztasun funtzionala⁹ zuten haurrentzako egoitzak ere, Orozkoko *Jesús María* adibide (Movimiento Nacional, 1964).

Bizkaian egon ziren egoitzei dagokionez, aldaketa ugari izan zituzten, bai kokapenari, zein izaerari dagokionez. Gainera, datak tentuz hartu behar dira, iturriaren arabera aldatzen direlako.

Taula 1: Bizkaiko Auxilio Socialeko egoitzetan egon ziren haurren kopurua, sexua eta adinaren arabera.

	Abadiño / Sodupe	Portugalete	Mungia	Bilbo	Urduña	Barakaldo
Kopurua	55 -> 65	55 -> 120	150	142	250 / 300	44
Sexua	Mistoa	Mutilak	Mutilak / Neskak	Neskak	Mutilak	Mutilak
Adina	3-7 urte	7-20 urte	7-16 urte	7<	7-12 urte	18<

Norberak egina. Datuen iturriak: *Labor social de la Falange en Vizcaya* (1943) eta Movimiento Nacional (1962 eta 1953).

Hasiera batean¹⁰, Abadiñoako *Nuestra Señora de Begoña* eta Portugaleteko *Evaristo Churruca*¹¹ egokitu zituzten, lehenengoa haur txikiei zuzendua eta bigarrena, eskola izaerarekin. Kasu

⁸ *Colonias Infantiles* direlakoak epe motzeko barnetegiak izanik ez dugu haietan sakonduko, baina laburbilduz, ustez, haur zein nerabeen osasun egoera hobetzean haien jatorrizko egoitzetara, edo etxera, bueltatzen ziren. Zumaia, Artxanda eta Sukarrietakoak adibide ditugu (Orduña Prada, 1996; Cenarro, 2006).

⁹ 60. Hamarkadako txosten honetan, Bizkaian ezgaitasunak (*subnormales*) zituzten 3.500 haur zeudela baieztatu eta Santurtzin, Portugaleten, Gernikan zein Bilbon egoitza desberdinak antolatzeko beharra mahaian jarri zuten.

¹⁰ El Alcázar Gallartan eraikitzen ari ziren egoitza erraldoi bati buruz ari bada ere, Auxilio Socialeko beste dokumentuetan ez da aipatzen, bai ordea Sección Femeninako memorietan, non *Estación Preventoria Carlos I* gisa aipatzen da. Era berean, Zornotzako *San Millán* baserri-eskola ageri da, besteak beste. (SF de las FET-JONS, 1950). Horrez gaiz, XXV. urteurrenoko txostenean agertzen den mapan Gordexolan egoitza bat egon zela adierazten da, baina beste kasuan bezala ez da gehiagotan aipatzen.

¹¹ Portugaleteko egoitzara eraman zituzten lehenengo haurrak Bartzelona eta “askatutako” beste lurralde batzuetatik ekarriak zirela baieztatzen da (Movimiento Nacional, 1962).

bietan berrogeita hamabost haur hartu zituzten, baina lehenengoa mistoa zen eta bigarrena soilik mutilentzat. Ondoren, Mungiako *Juana de Castilla* egokitu zuten, Portugaletekoaren izaera berdintsuarekin baina plazak hirukoiztuz, 150 bat mutiko hartu zituen. Guztietan emakumezko zuzendari baten izena aipatzen da, Abadiñoako egoitzaren kasuan Eugenia Díez edo Díaz Urrutia, eta beste bien kasuan Berta Abascal. Emakume biak kamaradatzat hartzen dira, beraz, Mugimenduko emakumeak ziren (*Labor social de la Falange en Vizcaya*, 1943; Movimiento Nacional, 1962 eta 1953).

Abadiñoako egoitza itxi zenean haurrak Sodupera mugitu zituzten, langileekin batera, eta egoitzak hasierako izena mantendu zuen. Iturri baten arabera, itxiera 1953an eman zen eta beste baten arabera, 1951ean, “zerbitzu beharren” ondorioz. Sodupeko egoitzaren itxieran, ustez 1959an, arrazoi bera luzatu zuten. Itxiera horretatik aurrera, haurren sexu banaketa erabatekoa izan zen Bizkaiko egoitza guztietan (Movimiento Nacional 1962 eta 1953).

Aldi batez, Mungiakoa nesken egoitza izatera pasa zen, eta ondoren, berriro ere mutilena. Neska guztiak Bilboko *Rafaela Ybarra*¹² egoitzara pasa ziren, Aingeru Zaindarekin egindako kontratu baten ondorioz. Beraz, bigarren aldaketa bat eman zen, Mugimenduko kideen zaintzapean egotetik, ordena katoliko baten eskutara pasa ziren neskak. Mungiako 100 bat mutilen kasuan ere, *Hermanas de la Compasión* ordenaren esku geratu ziren (Movimiento Nacional, 1962).

Mutilentzako beste egoitzei dagokionez, Urduñakoak eskola izaera izan zuen eta Barakaldoko *Sebastián Elcano* ikastun edota langile gazteei bideratutako egoitza bezala sortu zen, 40 bat mutil gazte hartuz. Portugaleteko egoitzari dagokionez eskola, ikastun eta erresidentzia funtzioak bereganatu zituen gutxinaka eta 120 bat mutil hartu zituen, 12 urtetik 20ra bitartean. Barakaldo zein Portugaleteko mutilen kasuan, Bizkaiko Labe Garaietan¹³ lan egin eta ikasten omen zuten eta haien soldata egoitzako zuzendariak kudeatzen zuen. Barakaldon gutxienez, zati bat egoitzan geratzen zen (Movimiento Nacional, 1953 eta 1962).

Vinyesek haurren egoitzak kontzentrazio-esparruekin alderatzen ditu eta baliteke hori Urduñako egoitzaren kasua izatea. Izan ere, *Antonio Menchaca* izeneko egoitzan, La Muera bainuetxe ohian kokatzen zena, 7 eta 12 urte arteko 250 edota 300 haur hartu zituzten (Movimiento Nacional, 1953 eta 1962). Ikusi dugunez, egoitzetan haur ugari zeuden 120 eta 150 bitartean, baina Urduñakoak zenbaki horiek bikoizten ditu. Eigurenek (2011) baieztatzen duenez, Urduñako La Muera bainuetxean 16 urtetik beherako nerabeentzako kontzentrazio-esparru baten plangintza garatu bazen ere, honek ez zuen argia ikusi eta 14 eta 17 urte arteko gazteak erreforma-etxeetara bideratuak izan ziren. Eigurenek ez du Auxilio Socialen egoitza aipatzen, baina kokapena ikusita, agian ideia ez zen paperean soilik gelditu.

Testigantzek bertsio ofiziala deseraikitzen dute erabat, eta adoktrinamenduarekin batera mota guztietako tratu txarrak azaleratzen dituzte. Erabilitako bibliografian ez dago Euskadin egondako haurren testigantzarik, ez eta Euskaditik kanpo egondako haur euskaldunen ahotsik. Hala ere, emakume baten testigantzagari esker euskaldun izateagatik trataera baztertzaila jasotzen zutela antzeman daiteke:

¹² Egoitza honetan neskek zuten errutina erlijiosoa benetan komentuariena zen eta hainbat neska nobiziotzara bideratu zituzten, besteak beste, Zornotzako *Carmelitas Misioneras*-era eta Gordexolako *Hijas de la Caridad*-ekin (Movimiento Nacional, 1953).

¹³ Jakina denez, Ybarra familiaren enpresa ezagunetarikoa bat izan zen. Ikastunentzako eskolak Industria Ministerioak emandako 1940ko agindu baten ondorioz sortu ziren, Bizkaiko Labe Garaien Sestaoko eskolaren kasuan 1941-1942 urtean martxan jarri zen José Ricardo Zubiriaren zuzendaritzapean. (IOHLEE, d.g) Barakaldon ere beste eskola bat egon omen zen.

... yo no sabía qué quería decir vasca, pero era un insulto, decirle ¡vasca!, así con muy mal genio, ¿sabes? (Cenarro, 2009, 187. orr)

Baliteke iturri literarioetan informazio baliagarria egotea. Izan ere, Gloria Fuertes¹⁴ esker Isabel Peralesek Aingeru Zaindarien egoitzan pairatutako bortxazko lan ez ordainduaren, hezkuntza ezaren (erlijiosoa salbu), gosearen, garbitasun ezaren eta humiliazioen berri dugu (Tusquets Editores, 2014).

Laneratze ikastaro eta tailerrak bortxazko lanak, edota lan esplotazioa bideratzeko erreminta zirela jakinda, modu batean edo bestean, mota honetako egoitza guztietan emango zela pentsa daiteke. Adibidez, Portugaleteko nerabeen ordutegiari erreparatuz gero, behar erlijiosoz gain, goizetan tailer edo fabriketara joaten zirela ikusten dugu, arratsaldean Labe Garaietako ikastunen eskolara, eta gauean, egoitzako eskolara (Movimiento Nacional, 1953).

5. Hogar infantil Virgen de Begoña (Abadiño, 1939-1951)

Llegamos a este Hogar Infantil, que tiene por marco uno de los lugares más bellos y pintorescos de nuestra provincia cuando las niñas y niños se hallaban disfrutando del recreo, al aire libre, en el hermoso jardín de esta finca, ideal para tal clase de instituciones. (*Labor social de la Falange en Vizcaya*, 1943, 14.orr)



Irudia 1 Nuestra Señora Virgen de Begoña (Abadiño), argazkilari eta urte ezezaguna, XXV. urteurreneko txostenean.

Egoitza egungo Zelaietako Hotela izenez ezagutzen den eraikinean zegoen, hau da, 1894ean Juan de Arancibia arkitektoak, eta Bizkaiko Adingabeen Babeserako Probintzia Batzordeko kideak eraikitako Ibaigoiti Etxean. El Alcázarreko argazkiak kalitate oso txarra du eta zalantzak sortzen baditu ere, XXV. urteurreneko txostenean oso argi ikusten da. Egun, lorategiaren espazioa murriztu da eta eraikinari negutegi bat atxikitu zaio, baina jauregiaren hiru solairuak bere horretan mantendu dira.

¹⁴ *Las tres bodas de Manolita* (2014) eleberrian pertsonai bihurtzen badu ere, benetako istorioa da. *Los internados del miedo* (2015) dokumentalean testigantza bera agertzen da. Bere kasuan, ez zen beste egoitzetatik igaro, 14 urterekin ahizpa txikiarekin batera, Aingeru Zaindarien sartzu zuten amaordea espetxean egoteagatik. Ahizpak banaturik egon ziren, eta dirudien txikiak oinarrizko hezkuntza jaso zuten.

Aztertutako dokumentuetan jauregi hau aukeratzearen nondik norakoak ez dira aipatzen, ezta hautatuko izenaren zergatiak. Deigarria da beste egoitzen kasuan aipatzen delako, adibidez Portugalete eta Urduñakoak emaria izan ziren, Mungiakoa alkilerrean izan zuten eta Bilbon zerbitzua baino ez zuten kontratatu (Movimiento Nacional, 1962). Jauregi hori Piedad Bengoechea Landari egindako inkautazio baten bitartez eskuratu zutela jakinda informazio hutsune hori ulergarriagoa da. Izan ere, 1949ko azaroaren 19ko Estatuko Aldizkari Ofizialean agertzen den azaroaren 3ko dekretuan adierazten denez, Bengoechea andreak okupazio bat pairatu zuen eta ondorioz Bizkaiko Auxilio Socialeko Delegaritzaren aurkako etxegabetze-agindua aurkeztu izan behar zuela azaltzen da luze.

Egoitzak funtzionatu zuen aldi zehatzari dagokionez, ez dago argitasunik. El Alcázarreko berriaren arabera 1939an zabaldu zela dirudi. Izan ere, Falangeko delegatu bizkaitarrak, Rodrigo Vivar Téllezek ordaindutako obren berri ematen du. Antza denez, urakan¹⁵ baten ondoren jauregiaren teilatua konpondu behar izan zuten eta bide batez eraikin osoaren erreparazioa abiatu zuten, haurrentzako plaza gehiago egokituz. Gainera, egoitzan zeuden haurrez arduratzen ziren langile eta bolondresen etxeari egindako berrikuntzak aipatzen dira, baina ostatu hori ez da argazkian ageri (*Labor social de la Falange en Vizcaya*, 1943). Bestalde, 1940ko apirilaren 2ko El Correo Español - El Pueblo Vasco egunkarian ordea hurrengo baieztatzen da:

Coincidiendo con el grato acontecimiento del aniversario de la Victoria, Auxilio Social quiso inaugurar ayer oficialmente el Hogar Infantil establecido en una magnífica finca del pueblo de Abadiano. (Movimiento Nacional, 1940, z.g.)

Itxierari dagokionez, 1951ean izan zela pentsa dezakegu. Auxilio Socialeko XXV. urteurreneko txostenean 1953an itxi zela aipatzen bada ere, gai moral eta erlijiosoan aholkularitzak (Asesoría Nacional de Cuestiones Morales y Religiosas) data zehatzago bat ematen du, 1951eko ekainaren 24a (Movimiento Nacional, 1953 eta 1962).

Egoitzan zeuden zerbitzuei dagokionez, topatutako dokumentuetan ez da haiekiko aipamen zuzenik egiten, baina geroago ikusiko dugun langileengatik pentsa dezakegu Auxilio Socialeko beste egoitzak bezala *instituzio totala* izango zela, hau da, haurrek jasotzen zituzten zerbitzu guztiak (hezkuntza, osasuna e.a.) egoitzan ematen zirela, eta ondorioz, egoitzatik oso gutxitan aterako zirela.

5.1. Haurrak

Haurrak pilaturik egon zirela pentsa dezakegu. Hasieran, 55 bat egon omen ziren, eta ondoren 65 (*Labor social de la Falange en Vizcaya*, 1943; Movimiento Nacional, 1953). Hala ere, hasieratik 80 bat egon zirela aipatzen da ere (Movimiento Nacional, 1962). Bestetik, iturri guztiek bat egiten dute haurren adin tartearrekin (3-7 urte) eta sexu bietako haurrak egon zirela baieztatzearekin. Sexu segregazioa arau orokorra bazen ere, egoitza “txikietan” neskak zein mutilak jaso zitezkeen.

Haurren profilari dagokionez, erakundearen diskurtsoaren arabera, egoitzetan barne-hartzen ziren umezurtzak, abandonatuak edota eskale aritzen ziren haurrak ziren, baina dakigunez gerrako umeak edota presoan- seme alabak egon zitezkeen ere. Zentzu honetan, baliteke presoan seme-alabak baino gerrako umeak izatea Abadiñoakoak.

¹⁵ 1941eko otsailaren 15a eta 16a artean haize bolada oso gogorak egon omen ziren iberiar penintsulako iparraldean, Santanderren suteak eragin zituzten eta Zumaian tren bat irauli, 20 bat hildako eraginez. (Cifuentes, 2010)

Batetik, presoen seme-alaben ardura zuen *Patronato de la Merced* izeneko instituzioaren memorien arabera (1941-1944) Abadiñoeko egoitza ez da ageri, bai ordea Durangoko *San Vicente de Paul* eta Elorrioko *Casa de la Beneficencia* adibidez (Vinyes, Armengou eta Belis 2002; Badiola Ariztimuño, 2019). Eta bestetik, Bizkaiko Auxilio Socialeko Delegaritzaren memoriarik topatu ez bada ere,¹⁶ txostenean baieztatzen denez:

(...) y así vinieron los que estaban en Francia, Inglaterra, Bélgica y Rusia, instalándose para ellos el comedor de García Rivero, hasta poder enviarlos a sus domicilios o ingresarlos en nuestros Hogares cuando carecían de familia. (Movimiento Nacional, 1962, z. g.)

5.2. Esku-hartzearen nondik-norakoak

Auxilio Socialek haurrak adokrinatzeko helburua zuen hezkuntza proiektua diseinatu zuen (Molinero, 2003; Cenarro, 2014). Haurrak egoitza batetik bestera igarotzen ziren, proiektuan murgilduz, eta Abadiñoekoa ibilaldi horren hastapena baino ez zen.

Hiru eta zazpi urteko haurrentzako egoitzetan hezkuntza erlijioso eta militarra hurbiltzen ziren, jolas, ipuin, eskulan eta abestien bitartez, besteak beste Montessoriren pedagogiari jarraituz (Cenarro, 2012). Hori bai, egoitzetan jasotzen zuten hezkuntza urria guztiz sexista zen, eta Abadiñoekoa neskak zein mutilak izan bazituen ere, nolabaiteko banaketa edo bideraketa egongo zela pentsa daiteke, jolas guneak eta jostailuak sexuaren arabera egokitzen zirelako, ondoren enplegu formakuntzan gertatuko zen bezala:

en el Reglamento de Hogares se especifica que en aquellos que estuviesen destinados a niños, las salas de juego contarían con «... mesas para carpintero, talleres rudimentarios... Y para las niñas, ... cocinitas, mesas costureros...» (Orduña Prada, 1996, 344. orr)

Gonzalez de Tenak, Auxilio Socialeko egoitzak komentua eta kuartelaren arteko zerbait bezala deskribatzen ditu eta Sodupeko haurren egunerokotasuna ikusita Abadiñoekoa irudikatu dezakegu:

Tienen todos los días, tanto por la mañana como por la tarde, sus oraciones en común y la labor principal se refiere a prepararlos para la primera comunión, con la enseñanza de las oraciones y puntos del catecismo necesarios. (Movimiento Nacional, 1953, 62.orr)

Haurrak fede kristauaren erritoak igaro behar zituzten halabeharrez, eta askotan fedea inposatzearekin batera izen-abizenak ere aldatzen zizkieten, Carmen, Mercedes, José Antonio eta Mugimenduko beste pertsonaia nabarmenena jarriz, batez ee pertsonaia horiek jaialdian parte-hartzen zutenean (Vinyes, Armengou eta Belis, 2002). Testuinguru horretan hobeto ulertu daiteke Gerediagako Agiritegian gordetako argazki hau non, besteak beste, Eduardo Lastagaray eta Genaro Riestra ageri diren Abadiñoeko Nuestra Señora de Begoña egoitzaren atarian egindako botere erakustaldian:

¹⁶ Abadiñoek ez du Agiritegi Historikorik eta Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoan zein Probintzian ez da ageri. Agiritegi arabera, zerbait egotekotan Administrazioaren Artxibo Orokorrean (gaztelaniaz, AGA) egongo litzateke, Alcalá de Henaresen.



Irudia 2 Niños y niñas, curas y militares, delante de la casa Auxilio Social, Hogar Infante, Germán Zorroaquin (d.g.), Gerediaga Elkartearen Artxiboan (AR-GZ-00698).

Militarizazioari dagokionez, haurrak *Organización Juvenil* delakoaren kide izatera behartuak ziren, falangeko uniformea jantziarazten zieten eta *Flecha* izena jasotzen zuten. Haurren egoitzetan, eskoletan bezala, abesti militarrek, agurrak eta abar ikasten zituzten (Cenarro, 2006).

5.3. Langileak

Haurrekin aritzen ziren zaintzaile gehienak emakume gazteak ziren. Erakundeak haien adoktrinamendua sustatu zuen, emetasunaren ideal nazional eta katolikoari jarraituz, hau da, amatasuna eta doako lan erreproduktiboa sustatuz. Kasu honetan, haurren zaintza (Molinero, 2003; González de Tena, 2007).

Hurrengo paragrafoan adierazten denez, Abadiñoko egoitzan emakumeek lanpostu desberdinak izan zituzten:

El Hogar, bajo la dirección de la señorita Eugenia Díaz Urrutia, cuyo entusiasmo, cariño e interés la convertía en una madre más que en una Directora, quedó atendido por guardadoras, puericultoras y enfermeras, aparte del servicio necesario para que los niños, perfectamente atendidos, estuvieran a cubierto de toda necesidad. (Movimiento Nacional, 1962)

Egoitzen zuzendariei dagokionez, perfil militantea hobesten zen, hala ageri da barne-arauetan:

Ha de ser una camarada de la Sección Femenina de FET y de las JONS, pero no de una manera cualquiera, sino que ha de ser nacional-sindicalista ardiente¹⁷ y que se haya distinguido por su constancia y afán de sacrificio. Su educación ha de ser esmerada y

¹⁷ Testu originealean egindako azpimarraketak.

con una profunda base religiosa, ya que es de sumo interés que influya con su ejemplo en las camaradas que debe formar. (González de Tena, 2007, 128. orr)

Guardadoras bezala deiturikoak, emakume oso gazteak omen ziren, formakuntza urrikoak eta askotan, Auxilio Socialeko ume ohiak. Haiiek egoten ziren hurrekin batez ere, eta beraz, haiiek ziren diziplina edota indarkeria erabiltzen zutenak (González de Tena, 2007; Cenarro, 2009). El Alcázarren Abadiñoako “guardadora” baten izena aipatzen da, María Dolores Revilla, egoitzaren inauguraziotik bertan aritu zena bolondres.

Erizaina edota puerikultorak haurren txertoez, elikaduraz eta abarrez arduratzen ziren eta Sección Femeninako kideak izaten ziren (Orduña Prada, 1996; SF de las FET-JONS, 1950). Hala ere, guztiek ez zuten formakuntzarik:

No es obligatorio que posean algún título, únicamente la Enfermera Puericultora necesitará el título oficial para desempeñar el cargo. (González de Tena, 2007, 140. orr)

Azkenik, kapilaua¹⁸ eta maistra zeuden. Azken hau, 1948ko abenduaren 31ko ordenarekin sortutako plaza izan zen, Auxilio Socialen menpe zeuden Eskola Nazionalen zerrenda argitaratu zen egunean. Abadiñoako eskolaren kasuan, maistra bakarra esleitu zen.

6. Ondorioak

Abadiñoako egoitza gerraosteko Auxilio Socialen eredian kokatu behar dugu, non Mugimenduko emakumeek indarra zuten. Era berean, gerraosteko lehenengo hamarkadetan arrazoi politikoengatik barneratutako ehundaka haur egon zirela pentsa dezakegu. Gutxienez, hamar bat urtez martxan egon zen eta hasieran 55 haur izateko gaitasuna izan bazuen ere, laster 65 haur izan zituen aldi berean, neskak zein mutilak.

Langileei dagokionez, gutxi dakigu kopuruari buruz. Hala ere, oro har, funtzio desberdinak jorratzen zituzten Sección Femeninako emakumeak ziren, ondoan zegoen eraikin batean bizi ziren eta gehienak formakuntzarik gabekoak ziren.

Haurrek egoitzaren barruan jasotzen zituzten komunitatean jaso zitezkeen oinarrizko zerbitzuak, hezkuntza eta osasuna adibidez, *eredu total*¹⁹ edo itxiari jarraituz.

Egoitza hau jarraikotasuna zuen hezkuntza sistema baten barruan kokatu beharra dago. Egoitza honetan beraz, frankismoaren doktrinaren hastapenak ikasten zituzten, baldintza gogorragoak izango zituzten egoitzetara ohituz, eta elizaren zein militarren erritueta parte-hartuz, halabeharrezko jaunartzea adibide. Haur hauek, Bizkaiko sarean zeuden egoitza ia guztiak ezagutuko zituztela pentsa dezakegu. Gutxienez, Sodupekoa, Mungiakoa eta Bilbokoa ezagutu zituztela baieztatu dezakegu.

Aditzen denez, hasiera batean egoitzak Bizkaiko eskualde desberdinetan egokitu baziren ere, gutxinaka Bilbo Handira hurbilarazi zituzten, ehundaka haur hartzeko gaitasuna zuten eraikinak hobetsiz eta industria guneetan kokatuz.

Bibliografia

¹⁸ Sodupeko erlijio aholkulari moduan Maximiliano Viana ageri da, aurretik Abadiñon egon zitekeen.

¹⁹ Eredu hau espetxe sistemarekin lotu ohi da mugitzeko askatasuna murriztu egiten delako, besteak beste.

Agindua (1949) [Ministerio de Educación Nacional]. Por la que se crean, con carácter definitivo, las siguientes Escuelas Nacionales con destino a las localidades y Grupos que se detallan, dependientes de la Obra de Auxilio Social. 1948ko abenduaren 31a. 58. EAO.

Arrien, Gregorio. (2014): *¡Salvad a los niños! Historia del exilio vasco en Gran Bretaña. (1937-1940)*. Sabino Arana Fundazioa.

Badiola Ariztimuño, Ascensión (2019). *Individuas peligrosas. La prisión central de mujeres de Amorebieta (1939-1947)*. Txertoa

Cenarro, Ángela (2006). *La sonrisa de falange. Auxilio Social en la guerra civil y en la posguerra*. Barcelona: Crítica.

Cenarro, Ángela (2009). *Los niños del Auxilio Social*. Madrid: Espasa.

Cenarro, Ángela (2012). Entre la regeneración y la punición: el modelo educativo en el Auxilio Social falangista. *Educació i Història: Revista d'Història de l'Educació*, 20, (47-66).

Cifuentes, Eduardo (2010eko otsailaren 27a). La ciclogénesis, paso a paso. *Deia*. <https://www.deia.eus/actualidad/sociedad/2010/02/27/ciclogenesis-paso-paso-5672924.html>

Dekretua (1949) [Francisco Franco]. Por el que se resuelve la cuestión de competencia surgida entre el Gobernador civil de Vizcaya y el Juzgado número 2 de los de Primera Instancia de Bilbao, relativo a una demanda de desahucio. 1949ko azaroaren 3a. 323. EAO.

Eiguren, Joseba (2011). *Prisioneros en el campo de concentración de Orduña (1937-1939)*. Ttartalo.

El aniversario de la Victoria, en Bilbao. (1940ko apirilaren 2an). *El Correo Español – El Pueblo Vasco*.

González de Tena, Francisco (2007). *Puentes de escarcha. Sistemas de socialización de los internos en los hogares de auxilio social*. [Doktorego tesia. UNED]

González de Tena, Francisco (2009). *Niños invisibles en el cuarto oscuro. Experiencias en el Auxilio Social del franquismo*. Madrid: Editorial Tébar.

Industri Ondare eta Herri Laneko Euskal Elkarte - IOHLEE (d.g.) La escuela de aprendices de Altos Hornos de Vizcaya en Sestao (I). 2024ko martxoaren 5ean eskuratuta hemen: <http://www.patrimonioindustrialvasco.com/patrimonio/la-escuela-de-aprendices-de-altos-hornos-de-vizcaya-en-sestao-i/>

Irazabal Agirre, Jon (2007). *Gerra Zibila Durangaldean (1936-1937)*. Abadiño: Gerediaga Elkarte.

Junta Provincial de Protección de Menores de Vizcaya (1940). *Memoria de la Junta Provincial de Protección de Menores de Vizcaya (1932-1939)*. Bilbao.

Junta Provincial de Protección de Menores de Vizcaya (1945). *Memoria de la Junta Provincial de Protección de Menores de Vizcaya (1940-1944)*. Bilbao.

Labor social de la Falange en Vizcaya. (1943ko ekainaren 18a). *El Alcázar*.
<https://catalogo.sanchoelsabio.eus/Record/191045>

Los 50 años del primer Tribunal Tutelar de Menores de España. Bilbao 1920-1970. (1970).
Bilbao: Centro de Redacción y Publicaciones de la Obra de Protección de Menores.

Molinero, Carme (2003). La política social del régimen franquista. Una asignatura pendiente de la historiografía. *Ayer*, 50, (319-331)

Movimiento Nacional (España). Delegación Nacional de Auxilio Social. (1953). *Resumen de la labor religiosa realizada por la obra de "Auxilio Social" durante el año 1952.* Madrid: Asesoría Nacional de Cuestiones Morales y Religiosas F.E.T. y de las J.O.N.S

Movimiento Nacional (España). Delegación Nacional de Auxilio Social (1962). *Auxilio Social en Vizcaya: XXV Aniversario.* Bilbao.

Movimiento Nacional (España). Delegación Nacional de Auxilio Social (1964). *Auxilio Social: XXV años de paz*, 3. Madrid: Imp. Fareso.

Orduña Prada, Mónica (1996). *El Auxilio Social (1936-1940). La etapa fundacional y los primeros años.* Escuela Libre Editorial.

Sección Femenina de F.E.T. y de las J.O.N.S (1950) *Labor realizada en 1949.* Madrid: Sección Femenina de F.E.T. y de las J.O.N.S.

Tusquets Editores (2014ko martxoaren 4a). *El testimonio de Isabel Perales – Las tres bodas de Manolita – Almudena Grandes.* [Bideoa]. Youtube.
<https://www.youtube.com/watch?v=dqd9PvEGKZE>

Vinyes, Ricard; Armengou, Montse eta Belis, Ricard (2002). *Los niños perdidos del franquismo.* Plaza & Janes Editores.